

2016KO IRAILAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.
ARETOA: Batzar Aretoa.
EGUNA: Hogeita bederatzia.
HILABETEA: Iraila.
URTEA: Bi mila eta hamaseia.
HASIERAKO ORDUA: Ordu-biak eta laurden
BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa
DEIALDIA: Lehena
OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)
MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde
Malu Valles Fernandez
Koldo Agirre Mujika
Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal
Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko uztailaren 28ko akta onartzea.

2016ko uztailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA: Esleipenak.

- ZAZPITURRIETA 4. AREAKO IGOGAILUA ETA URBANIZAZIO OSAGARRIA.

Ezagutzera eman da 2016ko irailaren 21eko kontratazio mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko ekainaren 30ean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Zazpiturrieta 4 arean igogailua eta urbanizazio osagarria egiteko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 274.507,67 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 4 hilabete.

2.- Deialdia, 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean lizitaziora, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: CAMPEZO, URBYCOLAN, CNES ARTZAMENDI, ORMAK CONSTRUCCIÓN, S.L., OTEGI-GAZTAÑAGA

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu lizitatzailerak guztiei onartu zitzaizkien lizitazioan parte hartzea.

4.- 2016ko irailaren 2an, plikak (B zenbakiko kartazala), irekitzeari buruzko ekintza burutu zen eta teknikoei pasa zitzaien proposamena teknikoa aztertu eta baloratzeko.

5.- 2016-09-20ean ezagutzera eman da balorazio txostena eta kontratazio mahaiko beste kideek ontzat eman dute. Eraitza honako hau izan da:

	OTEGI-GAZTAÑAGA	ARTZAMENDI	CAMPEZO	ORMAK	URBYCOLAN
Afección al tráfico	14	4,5	9,75	10,25	7,75
Programa trabajos	13	7,25	11,75	11,375	12
Fases y dificultades	9,25	2,25	6,75	5,625	6,25
Euskera	5	0	5	0	5
Mejoras	2,75	2,75	2.25	5	3
TOTAL	44	16,5	35,50	32,25	34

Gaur (2016-09-21), 8,30etan ekintza publikoan C kartazala ireki da eta eraitza ondorengo izan da

ENPRESAK / EMPRESAS	Prezioa BEZ gabe/ Precio sin IVA	PUNTUAK PUNTOS	Memoria+prezioa Memoria+precio
CAMPEZO	241.377,39	37,01	72,51
URBYCOLAN	214.826,76	50,00	84,00
CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI	251.837,01	25,33	41,83
ORMAK CONSTRUCCIÓN, S.L.	219.248,09	49,70	81,95
OTEGI-GAZTAÑAGA	217.874,32	49,80	93,80

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiaik Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Zazpitarrieta 4 arean igogailua eta urbanizazio osagarria egiteko obrak, **CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA, S.L**ri esleitzea, 217.874,32 €ko

prezioan gehi 45.753,61 €, BEZri dagokionak. Guztira: 263.627,93 €. Egikaritze epea 4 hilabete.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzari eguneratuta egotearen agiriak.
- 10.893,72 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Azpikontratazioari buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautze dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako 227 artikulua araberak.

Hirugarren. Obra zuzendaritza, TOLEDO TALDEA ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. proiektuaren idazleak eramango du eta kontratuaren arduraduna, Agustín Perez de Nancraes Castelruiz udal aparejadorea, izango da.

Lauugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena eman. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EAJ/PNV eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak proposamenaren alde azaldu dira, Beasaingo EH BILDU abstenitu egingo dela dio.

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ/PNV eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

- **ORIAKO PASEALEKUA.**

Ezagutzera eman da 2016ko irailaren 21eko kontratazio mahaiaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko uztailaren 29an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Ezkiaga auzoko frontoian igogailu publikoa jartzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 77.903,83 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 3 hilabete.

2.- Deialdia, 2016ko abuztuaren 4an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean lizitaziora, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: ARTZAMENDI eta CNES IPARRAGIRRE

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu lizitatzailer guztiei onartu zitzaizen lizitazioan parte hartzea.

4.- 2016ko irailaren 5ean, plikak (B zenbakiko kartazala), irekitzeari buruzko ekintza burutu zen eta teknikoei pasa zitzaizen proposamena teknikoa aztertu eta baloratzeko.

5.- 2016-09-20ean ezagutzera eman da balorazio txostena eta kontratazio mahaiko beste kideek ontzat eman dute. Emaiza honako hau izan da:

	IPARRAGIRRE	ARTZAMENDI
Afección al tráfico	10,25	4,25
Programa trabajos	14,50	3,875
Fases y dificultades	6,75	1,625
Euskera	5	0
Mejoras	5	2,5
TOTAL	41,50	12,25

Gaur (2016-09-21), 8,45etan ekintza publikoan C kartazala ireki da eta emaitza ondorengoa izan da:

ENPRESAK / EMPRESAS	Prezioa BEZ gabe/ Precio sin IVA	PUNTUAK PUNTOS	Memoria+prezioa Memoria+precio
CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI	63.038,90	50,00	62,25
CNES IPARRAGIRRE	75.698,22	8,68	50,18

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaia Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Ezkiaga auzoko frontoian igogailu publikoa jartzeko obrak, CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A.ri esleitzea, 63.038,90 €ko prezioan gehi 13.238,17 €, BEZri dagokionak. Guztira: 76.277,07 €. Egikaritze epea 2 hilabete eta aste bat.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 3.151,95 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Azpikontratazioari buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautze dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako 227 artikulua araberaren arabera.

Hirugarren. Obra zuzendaritza, TOLEDO TALDEA ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P. proiektuaren idazleak eramango du da eta kontratuaren arduraduna, Agustín Perez de Nanclares Castelruiz udal aparejadorea, izango da.

Laugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EAJ/PNV eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak proposamenaren alde azaldu dira, Beasaingo EH BILDU abstenitu egingo dela dio.

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ/PNV eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

- **NEKOLALDE KALEA BERRIZTATZEA.**

Ezagutzera eman da 2016ko irailaren 21eko kontratazio mahaiaren proposamena:

AURREKARIAK

1.- 2016ko uztailaren 29an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Nekolalde kalea berriro urbanizatzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 368.329,35 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 5 hilabete.

2.- Deialdia, 2016ko abuztuaren 4an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean lizitazioa, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: LASUEN, URBYCOLAN, OTEGI GAZTAÑAGA, PROBISA, CAMPEZO

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu lizitatzailerik guztiei onartu zitzaizkien lizitazioan parte hartzea.

4.- 2016ko irailaren 2an, plikak (B zenbakiko kartazala), irekitzeari buruzko ekintza burutu zen eta teknikoei pasa zitzaizkien proposamena teknikoa aztertu eta baloratzeko.

5.- 2016-09-20ean ezagutzera eman da balorazio txostena eta kontratazio mahaiko beste kideek ontzat eman dute. Emaidza honako hau izan da:

	OTEGI-GAZTAÑAGA	LASUEN	CAMPEZO	PROBISA	URBYCOLAN
Afección al tráfico	12,50	4,75	8,00	5,25	7,75
Programa trabajos	10,00	9,13	9,75	7,25	12
Fases y dificultades	9,50	4	6,75	2,50	6,25
Euskera	5	0	5	0	5
Mejoras	4,50	0	3,75	3,00	3
TOTAL	41,50	17,88	33,25	18,00	26,25

Gaur (2016-09-21), 8,30etan ekintza publikoan C kartazala ireki da eta emaitza ondorengo izan da:

ENPRESAK / EMPRESAS	Prezioa BEZ gabe/ Precio sin IVA	Puntos Puntuak	Memoria+prezioa Memoria+precio
OTEGI-GAZTAÑAGA	299.814,72	50,00	91,50
LASUEN	312.086,13	49,28	67,16
CAMPEZO	368.250,02	0,07	33,32
PROBISA	306.069,90	49,63	67,63
URBYCOLAN	336.970,43	26,11	52,36

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Nekolalde kalea berriro urbanizatzeko obrak, CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA, S.Lri esleitzea, 299.814,72 €ko prezioan gehi 62.961,09 €, BEZri dagokionak. Guztira: 362.775,81 €. Egikaritze epea 5 hilabete.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 14.990,71 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Azpikontratazioari buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautze dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako 227 artikulua araberaren arabera.

Hirugarren. Obra zuzendaritza, Miguel Salaverria, proiektuaren ingeniario idazleak eramango du eta kontratuaren arduraduna, Agustín Perez de Nanclares Castelruiz udal aparejadorea, izango da.

Laugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Horren ondorioz, bozketa eginda, denak proposamenaren alde azaldu dira.

Beraz, aho batez onartu da proposamena.

3.- HIZKUNTZA ERREFORTZU ZERBITZUAK KONTRATATZEA: Deialdia hutsik.

Ezagutzera eman da, 2016ko uztailaren 29an egindako Gobernu Batzordeak erabaki zuela Beasainen hizkuntza errefortzua behar duten haurrentzako zerbitzua kontratatzeko, deialdi publikoa egitea eta baldintza plegua onartzea, erabaki zuela. Deialdia 2016ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epean (2016-09-05) ez zela inolako eskaintzarik aurkeztu.

Beraz, proposatzen dena da deialdia hutsik uztea lizitatzailerik faltagatik.

Aho batez onartu da.

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Deialdia hutsik geratu da abuztuan atera zelako. Bi enpresak interesa azaldu dute, baina badirudi prezioetan ez zirela sartzen. Kontratuaren prezioa urteko, 40.500,00 €koa (BEZ kanpo) zen. Orain deialdi berri bat egingo da eta prezioa 50.000,00 € arte gehituko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Guk gure jarrera bai lehen eta bai orain ere (batzordean eztabaidatu genuen) erakutsi dugu zein den. Ez gaude ados.

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Lehen joko librea zen orain, ordea, ez. Hasieran ere euskara bultzatzeko asmoarekin jaio zen, baina ez gatoz bat eman duen bilakaerarekin. Ez zaigu iruditzen “yoga txiki” ikastaroak ordaindu behar ditugunik.”

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Gauzak sakonagoak dira. Ez bazaude ados, zabaldu beste modu batera. Orain eskaini nahi dena ez da

ludoteka eta gure ustetan horren beharra dago, baina horrek ez du esan nahi joko librea izan behar duenik.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Orain arte joko librea zen eta asistentzia ere bai.”

Koldo Agirre jaunak (EAJ/PNV): “BILDUk eskatzen duena da, ludoteka zerbitzua eskaintzea. Badakigu ez dela derrigorrezko zerbitzua, baina adin horretakoei zerbitzu hori eskaini behar zaie. Ematen den zerbitzua gustukoa ez denean, enpresa aldatu daiteke eta baldintza plegu berri bat idatzi.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Aurten kontratua amaitzen zen eta izandako asistentzia oso eskasa izan da. Kale hezitzaileak gaztelekua erabili dute berain lana burutzeko eta gertatu dena da sozializatu orde, gaztelekura joaten ziren gazteak joateari utzi ziotela.”

Koldo Agirre jaunak (EAJ/PNV): “Bi aukera daude: edo zerbitzua kendu eta buelta bat eman. Zineari, adibidez, buelta bat eman zaio.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) galdetu du ea zenbat denboratan asistentzia hain txikia izan den.

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Beraiek jabetu ziren zerbitzuak izandako beherakadaz. Aldiz beste ekintza batzuk igo egin dira, hala nola, dantza, pintura, musika, etab. BKLeke hezi egiten du, futbolearen ere hezi egiten dira. Beharra ikusi ezkeren zerbitzuarekin jarraituko genuen. Ez ematearena ez da gure kapritxo izan.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ustetan plaza azpiko ludotekako zerbitzua guztiz desproporzionatua zen, aldiz, Ezkiagan badirudi funtzionatu egiten zuela.”

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Gure ustean, bai ludoteka eta baita ere gazte-lekuaren beharra dago, nahiz eta azken bolada honetan ez funtzionatu oso ondo.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Egia da ez dakigula eman nahi dugun zerbitzu berriak funtzionatuko duen ala ez eta garbi daukagu, gazte-leku zerbitzua kendu baino, momentuz eten egin nahi dugula.”

Koldo Agirre jaunak (EAJ/PNV), Alkateari galdetu dio ea edozein umek izen emateko aukera izango duen.

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Izen emateko aukera izango dute. Agian zerbitzua kudeatu behar duen enpresak ume euskaldunen beharra izango du, baina gazte-lekuarekin moztu egiten da, lehen esandako arrazoiengatik. Azkeneko urtean 13 urteko 9, 7 eta 11 lagun ibili dira bakarrik.”

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Bakoitzak gurearekin jarraitzen badugu, ezinezkoa da. Orain proposatzen dena da, adin txikikoentzako euskaltegia.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Hori ez da gure pretentsioa. Diferentzia nabarmena da. Ludoteka zerbitzua euskara sailetik sortu zen eta berriro ekin egin nahi diogu dena eguneroko giroan euskara indartzeari, baina ez joko librearen bidez, baizik eta bideratutako joko baten bidez.”

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Baina joku libreak sozializatzeko ere balio du. Beste tokietan hezi egiten dituzte, baina ludotekan aisialdirako zerbitzua ematen da.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Helburua euskara indartzea da. Gaztelekuan, gaztelaniaz hitz egiten zen.”

Amaia Barandiaran andreak (Beasaingo EH BILDU): “Denok nahi dugu onena beasaindar umeentzat eta euskaraz bada, askoz hobeto.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Ikastetxeetako Kontseiluetan gabezia hori dagoela komentatzen da eta ikastetxetakoek esku bat botatzeko eskatu digute. Gure nahia euskara errefortzua ematea da eta horrek balio izatea umeek beste esparruetan jarduteko.”

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko hirurak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honen akta hau idatzi eta sinatu dut.